Evolución de la recaudación líquida de los tributos concertados



Zerga itunduen bilketa likido osoak 2013-2016 epealdian izan duen bilakaerari erreparatuta, igoera ikusten da 2014an (+%5,4), berriz igoera 2015ean (+%4,3) eta 2016. urtean, +%2,3koa.

Osagaietan banatuta, honela geratu da bilketa likidoa:

Fijándonos en la evolución de la recaudación líquida total de los tributos concertados en el referido periodo 2013-2016, se observa aumento del 5,4% en el año 2014, para volver a aumentar un 4,3% en el ejercicio 2015 y un 2,3% en el ejercicio 2016.

Si desglosamos la recaudación líquida en sus componentes:

- **Kudeaketa propioetik** eratorritako urteko bilketa %5,3 hazi da 2014an, %4,0 2015ean, eta %2,5 2016an.
- Estatuak BEZagatik ordaintzen dituen **doikuntzak** %8,6 hazi ziren 2014an, %5,0 hazi ziren 2015ean eta %2,8 hazi ziren 2016an. Zerga berezien doikuntzek zeinu negatiboa izan dute ekitaldi guztietan, hau da, Estatuaren aldekoak gertatu dira. Doikuntze hauek jaitsiera handiak dituzte 2014an eta 2016an: %19,0 jaitsi ziren 2014an eta %19,7 2016an. 2015ean %5,3 hazi ziren.

Zerga taldeen arabera banatuz gero, honako hau erakusten digu kudeaketa propioiko bilketa likidoaren bilakaerak:

- Zuzeneko zergak 2014an, 2015ean eta 2016an, hazten dira, %2,3, %5,3 eta %3,0, hurrenez hurren.
- Zeharkako zergek hazkunde tasa positiboa dute baita ere: 2014an (%9,1), 2015ean (%2,3) eta 2016an (%2,3).
- Tasek eta bestelako sarrerek, kuantitatiboki garrantzi gutxikoak, gorabeherak dituzte: %21,0 jaitsi dira 2014an, %27,5 igo 2015ean, eta %8,0 jaitsi 2016an.

Kapitulu honetako hurrengo apartatuetan informazioa jaso dugu Herri Finantzen Euskal Kontseiluari atxikitako zerga itunduen bilketan nolabait eragin duten **arau mallako aldaketei buruz**. Era berean, xehetasunak ematen ditugu **zerga nagusien** bilketaren inguruan: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Zerga Bereziak.

- La recaudación anual derivada de la **gestión propia**, ha crecido el 5,3% en 2014, el 4,0% en 2015 y el 2,5% en 2016.
- Los **ajustes** que ingresa el Estado en concepto de IVA aumentaron un 8,6% en 2014, aumentaron un 5,0% en 2015 y aumentaron un 2,8% en 2016. Los ajustes por impuestos especiales han sido de signo negativo en todos los ejercicios, es decir, a favor del Estado. Estos ajustes tienen descensos significativos en 2014 y 2016: decrecen un 19,0% en 2014 y decrecen un 19,7% en 2016. En 2015 crecen el 5,3%.

Un mayor desglose de la evolución de la recaudación líquida de gestión propia por grupos de tributos nos muestra:

- Los impuestos directos aumentan en 2014, 2015 y 2016, el 2,3%, el 5,3% y el 3,0%, respectivamente.
- Los indirectos también presentan tasa de crecimiento positivo: 2014 (9,1%), 2015 (2,3%) y 2016 (2,3%).
- Las tasas y otros ingresos, cuantitativamente muy poco significativos, tienen alteraciones: decrecen un 21,0% en 2014, crecen un 27,5% en 2015, y decrecen el 8,0% en 2016.

En los siguientes apartados de este capítulo se recoge información acerca de los **cambios normativos** que han podido influir en la recaudación de los tributos concertados afectos al Consejo Vasco de Finanzas Públicas, así como el detalle de la recaudación de los **principales impuestos**: Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades, Impuesto sobre el Valor Añadido e Impuestos Especiales.

7.1. ARAUDIAREN ALDAKETAK

Herri Finantzen Euskal Kontseiluari atxikitako zerga itunduen bilketari dagokionez, hona hemen araudiak izan dituen aldaketa nagusiak:

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga:

2015eko apirilaren 13an argitara eman zen GAO n apirilaren 7ko 3/2015 Foru Araua, mendeko finantza-ekarpenetatik, mendeko zorretik eta lehentasunezko partaidetzetatik datozen errenta negatiboak integratu eta konpentsatzeko araubidea onartzen duena. Foru arauak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak, eta ondoko hau arautzen du:

- Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legean aurreikusita dauden mendeko finantza-ekarpenen ondorioz pertsona fisikoek lortutako etekinei aplikatu beharreko zerga araubidea. Abenduaren 23ko 7/2015 Foru Arauak zati batean aldatu zuen arauketa hori.
- Mendeko finantza-ekarpenetatik, mendeko zorretik eta lehentasunezko partaidetzetatik datozen errenta negatiboak integratu eta konpentsatzeko araubidea.

2015eko abenduaren 28an argitara eman zen GAO n abenduaren 23ko 7/2015 Foru Araua, zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen dituena. PFEZari dagokionez, aldaketa gehienak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin egiten dira, eta haien artean hauek nabarmendu daitezke:

- Atzerriko lanengatik jasotako ordainsarien salbuespenean, desagertzen da enpresa edo entitate enplegatzailea Espainian egoiliarra izateko beharkizuna.
- Jarduera ekonomikoetarako dagokienez, argitu egiten da sozietateen gaineko zergan aurreikusten diren konpentsazioak eta erreserbak ez direla aplikagarriak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.
- Kapital higigarriaren etekinen arauketari dagokionez, ezartzen da kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten

7.1. CAMBIO DE NORMATIVA

Los principales cambios de normativa en relación con la recaudación de los tributos concertados afectos al Consejo Vasco de Finanzas Públicas han sido los siguientes:

Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

El 13 de abril de 2015 se publica en el BOG la Norma Foral 3/2015, de 7 de abril, por la que se aprueba el régimen de integración y compensación de rentas negativas derivadas de aportaciones financieras subordinadas, deuda subordinada y de participaciones preferentes. Esta Norma Foral surte efectos desde el día 1 de enero de 2015 y regula lo siguiente:

- Régimen fiscal aplicable a los rendimientos obtenidos por personas físicas derivados de aportaciones financieras subordinadas previstas en la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi. Esta regulación se modifica en parte por la Norma Foral 7/2015, de 23 de diciembre.
- Régimen de integración y compensación de rentas negativas derivadas de aportaciones financieras subordinadas, de deuda subordinada y de participaciones preferentes.

El 28 de diciembre de 2015 se publica en el BOG la Norma Foral 7/2015, de 23 de diciembre, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias. Por lo que se refiere al IRPF, entre las diferentes modificaciones que se incluyen cabe destacar las siguientes, en su mayoría con efectos desde el día 1 de enero de 2015:

- En la exención de las percepciones por trabajos realizados en el extranjero, se elimina la exigencia de que la empresa o entidad empleadora sea residente en España.
- En materia de actividades económicas, se aclara que las compensaciones y reservas previstas en el Impuesto sobre Sociedades no son de aplicación en el IRPF.
- En la regulación de los rendimientos del capital mobiliario, se establece que no se computará el rendimiento neto negativo

aktiboak dohaintzan emateagatik sor daitekeen etekin garbi negatiboa konputatu gabe utziko dela, inter vivos egintzen kosturik gabeko eskualdaketetatik edo liberalitateetatik eratorritako ondare galeretan aurreikusitakoaren antzera.

- Zehazten da epemugara iritsitako baina kobratu gabeko kredituetatik eratorritako ondare galeren egozpen tenporala, eta haien araubide iragankorra ezartzen da.

- Berariaz jasotzen da zergadunak posible duela gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako edo egotzitako diru-kopuruak ondorengo bost ekitaldietan murriztea, haiek zerga oinarri orokorrean murriztu ezin izan direnean hura nahikoa ez izateagatik.

- Hamar urtetik bost urtera murrizten da aurrezpen sistematikoko banakako planetan lehenengo primatik biziarteko errenta eratu arte exijitzen den gutxieneko epea.

- Ezartzen da zordunak konkurtso prozeduretan eskuratzen dituen errentak salbuetsita geratzen direla, haren zorrak jarduera ekonomiko batetik datozenean.

- Doikuntzak sartzen dira kapital higigarriaren etekinetan eta ondare irabazi eta galeretan, lehen-lehenik, Euskal Zuzenbide Zibilararen ekainaren 25eko 5/2015 Legea onartzeagatik gerta litezkeen distorsioak galarazteko. Aldaketa hori 2015eko urriaren 3tik aurrerako ondorioekin sartzen da.

2015eko uztailaren 30ean argitara eman zen GAOn uztailaren 28ko 73/2015 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan zenbait atxikipen eta konturako sarrera 2015. urterako aldatzen dituen. Zehazki, hauek aldatzen dira uztailaren 12tik aurrerako ondorioekin:

-jarduera profesional baten kontraprestazio diren etekinen atxikipen tasa: 100eko 19tik 15era eta 100eko 9tik 7ra.

-Errenta zergaren erregelamenduko 93.2.b) artikuluan eta sozietate zergaren erregelamenduko 55.a) artikuluan aurreikusitako kapital higigarriaren etekinen kasuan, atxikipen tasa 100eko 20tik 19,5era jaisten da. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera 100eko 19 aplikatzen

que se pueda generar como consecuencia de la donación de activos representativos de la cesión a terceros de capitales propios, de forma paralela a lo ya previsto en las pérdidas patrimoniales derivadas de transmisiones lucrativas por actos inter-vivos o de liberalidades.

- Se concreta la imputación temporal de pérdidas patrimoniales derivadas de créditos vencidos y no cobrados, y se establece su régimen transitorio.

- Se recoge expresamente la posibilidad de reducir en los cinco ejercicios siguientes las cantidades aportadas o imputadas a sistemas de previsión social del contribuyente que no hayan podido ser objeto de reducción en la base imponible general por insuficiencia de la misma.

- Se reduce de diez a cinco años el plazo mínimo exigido a los planes individuales de ahorro sistemático entre la primera prima y el momento de la constitución de la renta vitalicia.

- Se establece la exención de las rentas obtenidas por la persona deudora en procedimientos concursales, siempre que las deudas no deriven del ejercicio de actividades económicas.

- Se incluyen una serie de ajustes en los rendimientos del capital mobiliario y en las ganancias y pérdidas patrimoniales, para evitar, en un primer término, distorsiones que podrían surgir como consecuencia de la aprobación de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco. Esta modificación se incluye con efectos 3 de octubre de 2015.

El 30 de julio de 2015 se publica en el BOG el Decreto Foral 73/2015, de 28 de julio, por el que se modifican para 2015 determinados tipos de retención e ingreso a cuenta en el IRPF y en el Impuesto sobre Sociedades. En concreto se modifica con efectos del 12 de julio:

-el tipo de retención de los rendimientos por contraprestación de una actividad profesional: del 19 al 15 por 100 y del 9 al 7 por 100.

-el tipo de retención de los rendimientos de capital mobiliario, previstos en el artículo 93.2.b del reglamento del IRPF y de los previstos en el artículo 55 letra a del reglamento del Impuesto sobre Sociedades: del 20 al 19,5 por 100. A partir del 1 de enero de 2016 será del 19 por 100.

da.

2015eko irailaren 2an argitara eman zen GAOn irailaren 1eko 79/2015 Foru Dekretua, ondasun higiezin errentamendutik eta azpierrementamendutik eta inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzen eskualdaketa edo itzulketetatik datozen etekinei aplikatu beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak 2015. urterako aldatzen dituena. Irailaren 1etik aurrerako ondorioekin, kontzeptu horietarako atxikipen tasa 100eko 20tik 100eko 19,5era jaisten bai errenta zergan bai sozietate zergan. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, 100eko 19 aplikatzen da.

Sozietateen gaineko zerga:

2015eko urriaren 27an, argitara eman zen GAOn urriaren 20ko 2/2015 Foru Dekretu-Araua, sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aldatzen dituena. Sozietateen gaineko zergari dagokionez, aldaketak sartzen dituen talde fiskalaren kontzeptuan, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

2015eko abenduaren 28an argitara eman zen GAOn abenduaren 23ko 7/2015 Foru Araua, zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen dituena. Sozietateen gaineko zergari dagokionez, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzeko sartzen diren aldaketen artean honako hauek nabarmendu daitezke:

- 31. artikuluari gehitzen zaion letra berri baten bitartez, espresuki ezartzen da arauen bat ez betetzeagatik aplikatzen diren berandutze interesak ez direla kengarriak. Aipatzekoa da aldaketa horrek ez dakarrela, berez, inolako berrikuntzarik, eta haren helburua izan dela segurtasun juridikoaren mesedean berariaz jasotzea bai Administrazio honek eta bai jurisprudentziak gaur arte erabilitako irizpide bat.
- Gaia bidezko eran interpretatzen ari bazen ere, argitzen da ondare entitateek ezin dutela inolako kenkaririk aplikatu.

El 2 de septiembre de 2015 se publica en el BOG el Decreto Foral 79/2015, de 1 de septiembre, por el que se modifican para 2015 los tipos de retención e ingreso a cuenta derivados del arrendamiento y subarrendamiento de inmuebles y de las transmisiones o reembolsos de acciones y participaciones de instituciones de inversión colectiva. Con efectos del 01 de septiembre el tipo de retención por los citados conceptos, tanto en el IRPF como en el Impuesto sobre Sociedades, se modifica del 20 al 19,5 por 100. A partir del 1 de enero de 2016 será del 19 por 100.

Impuesto sobre sociedades:

El 27 de octubre de 2015 se publica en el BOG el Decreto Foral-Norma 2/2015, de 20 de octubre, por el que se modifican el Impuesto sobre Sociedades, el Impuesto sobre la Renta de no Residentes y el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados. Por lo que se refiere al Impuesto sobre Sociedades, con efectos para los períodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2015, se han incorporado modificaciones en el concepto de grupo fiscal del Impuesto sobre Sociedades.

El 28 de diciembre de 2015 se publica en el BOG la Norma Foral 7/2015, de 23 de diciembre, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias. Por lo que se refiere al Impuesto sobre Sociedades, entre las diferentes modificaciones que se incluyen, con efectos para los períodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2015, cabe destacar las siguientes:

- Se regula expresamente la no deducibilidad de los intereses de demora derivados del incumplimiento de alguna norma, mediante la inclusión de una nueva letra en el artículo 31. Cabe resaltar que esta modificación no supone una novedad, sino que, en aras de la seguridad jurídica, viene a recoger expresamente un criterio mantenido hasta la fecha tanto por esta Administración como por la jurisprudencia.
- Se aclara que las entidades patrimoniales no pueden aplicar ningún tipo de deducción, cuestión que ya venía siendo

- Espainiako edo Europako interes ekonomikoko taldeen kasuan, edo araubide berezian tributatzen duten aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, egokitu egin da zerga oinarri positiboaren 100eko 2ko forfaitaren aplikazioa, bikoiztasunak saihesteko. Forfaitak mikroenpresen dimentsioak dakartzan zailtasunak konpentsatzea du helburu.

- Aldaketak sartzen dira zerga baterakuntzaren araubidean, urriaren 20ko 2/2015 Foru Dekretu-Arauk ekarritako aldaketen ondoren erregimen osoak koherentzia izan dezan. Zerga baterakuntzaren araubidean sartu diren neurrien artean, bost bloke bereiz ditzakegu:

1. Lehenengo aldaketa multzoa barne-itunari buruzkoa da, EZKOaren barnean adostuta baitago, eta beraz, Gipuzkoako araudian ere aplikatu behar da, hiru lurralde historikoen artean tributazioa banatzeko arauak ezartzen dituelako.

2. Bigarren neurri blokean - zalantzarik gabe handiena eta teknikoena-, taldeen terminologia berriari buruzko artikulua egokitzen dira, eta aldi berean, zerga baterakuntzaren erregulazioa barne-ituneko arau berrietara ere egokitzen da.

3. Hirugarren neurri blokearen helburua da zerga baterakuntzaren araubidea talde bateratuen errealitatera egokitzea. Hala, bloke horretako neurrietako bat da sozietate bat talde bateratu batean sartu nahi bada, erabakia Administrazio Kontseiluak hartu behar duela, eta ez Akziodunen Batzordeak, entitateentzat askoz ere errazagoa baita erabaki hori Administrazio Kontseiluaren bidez izapidetzea. Beste aldaketa bat da zehapen erregimena errealitatera egokitzen dela, eta zehapen handiagoak ezartzen direla beharrezkoa erabakiak onartzen ez badira, aurreko zehapen erregimena ez baitzen behar bezain eragozlea. Aldi berean, zehapen berrien zenbatekoak gehiago egokitzen dira zenbait entitatek osatutako talde bateratuen egituretara.

4. Laugarren aldaketa blokean, berriaz araututa ez zeuden arauak ezartzen dira, nahitaez sartu beharrekoak, legegileak nahi ez

interpretada en este sentido.

- En el caso de agrupaciones de interés económico, españolas o europeas, o de uniones temporales de empresas que tributen bajo el régimen especial correspondiente, se ajusta la aplicación del forfait del 20 por 100 de la base imponible positiva, compensatorio de las dificultades inherentes a la dimensión de las microempresas, para evitar duplicidades.

- Se introducen una serie de modificaciones en el régimen de consolidación fiscal para que el régimen en su conjunto tenga coherencia tras las modificaciones introducidas por el Decreto Foral-Norma 2/2015, de 20 de octubre. De entre las medidas introducidas en el régimen de consolidación fiscal, podemos distinguir cinco bloques:

1. La primera modificación aborda el intraconcierto, aspecto acordado en el seno del OCTE y que es de obligatoria incorporación a la normativa guipuzcoana, ya que supone las reglas de distribución de la tributación entre los tres Territorios Históricos.

2. El segundo bloque de medidas, sin duda el más grande, es de carácter técnico, donde se adecuan los artículos correspondientes a la nueva terminología de los grupos, y donde se adecua igualmente la regulación del régimen de consolidación fiscal a las nuevas reglas del intraconcierto.

3. El tercer bloque de medidas son medidas que suponen una adecuación del régimen de consolidación fiscal a la realidad de los grupos consolidados. Así, una de las medidas de este bloque consiste en que el acuerdo de la sociedad para formar parte de un grupo consolidado lo tome el Consejo de Administración en lugar de la Junta de Accionistas, lo cual simplifica la tramitación del mismo para las entidades. Otra de las modificaciones consiste en la adecuación del régimen sancionador a la realidad, exigiendo mayores sanciones en caso de no adoptar los acuerdos necesarios, ya que el régimen sancionador anterior no resultaba suficientemente disuasorio y, a su vez, los nuevos importes se adecuan más a una estructura de grupo consolidado, formado por varias entidades.

4. El cuarto bloque se refiere a unas reglas que no estaban expresamente reguladas pero que se ha considerado necesario introducirlas,

duen arau hutsune bat betetzeko. Zehazki, kontabilitate emaitzatik eratorritako zuzenketak aplikatzeko arauak dira, entitate bat talde batean sartu edo hortik ateratzen bada aplikatu beharrekoak, alegia.

5. Azkenik, badago gai bat, proiektuan araututa zegoen arren, sistematika arrazoiengatik zegokion apartatutik kendu eta berriro sartu dena zerga baterakuntzaren araubideari buruzko gainerako aldaketekin batera. Mikroenpresen eta talde bateratuen kasuan aplikatzen den %20ko forfaitaren kalkulua ari gara.

- Berrinbertsioak dakarren salbuespena aplikatzeko, beharkizun orokor bihurtu da berrinbertsioa elkarri lotu gabeko pertsona edo entitateei eskuratutako ondare elementuetan gauzatzea. Lehenago, beharkizun hori sozietate taldeen esparruan bakarrik zegoen ezarrita.

- Zuzenketa tekniko bat egiten da, konpentsazioaren figuraren kalkulua sinplifikatu nahi delako enpresen kapitalizazioa sustatzeko. Aldaketa da hartzen den erreferentzia aurreko urteko batez bestekoa dela, eta ez aurreko bi ekitaldietakoa.

- Azkenik, kooperatiben zerga araubideari dagokionez, konpondu egiten da sozietateen gaineko zergaren kuota efektiboa kalkulatzeko sortutako arazoa, alegia, zerga araubide horri buruzko foru arauan bereziki babestutako kooperatibek aplikatzeko jasota dagoen kuota likidoaren 100eko 50eko kenkaria eta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan jasotako kenkari mugadun eta mugagabeak aldi berean aplikatzean sortutako arazoa. Hori horrela, ordenatu egiten dira haien aplikazioa eta kalkulua.

2016ko irailaren 30ean argitaratu eman zen BOEn irailaren 30eko 2/2016 Errege Lege-Dekretua, defizit publikoa murrizteko zerga neurriak ezartzen dituen. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako, aldaketak sartzen ditu sozietate zergaren ordainketa zatikatuen araubidean, zergaldia hasi aurreko 12 hilabeteetan zergadunen negozio bolumenaren zenbateko garbia gutxienez 10 milioi eurokoa bada.

debido a que suponen un vacío normativo no deseado por el legislador. En particular, se trata de las reglas de aplicación de las correcciones derivados del resultado contable, en supuestos en los que una entidad pasa a formar parte de un grupo o bien sale del mismo.

5. Por último, se introduce un aspecto que estaba regulado en el proyecto pero que, por sistemática, se ha eliminado del apartado correspondiente y se ha vuelto a introducir junto con el resto de modificaciones relativas al régimen de consolidación. Se trata del cálculo del forfait del 20% en el supuesto de microempresas y grupos consolidados.

- Para la aplicación de la exención por reinversión, se generaliza la exigencia de materializar la reinversión en elementos patrimoniales adquiridos a personas o entidades no vinculadas, requisito que anteriormente se establecía únicamente en el ámbito de los grupos de sociedades.

- Se introduce una corrección técnica y de simplificación del cálculo de la figura de la compensación para fomentar la capitalización empresarial. La modificación consiste en tomar como referencia la del año anterior, y no la media de los años anteriores.

- En materia del Régimen Fiscal de Cooperativas, se resuelve la problemática generada en el cálculo de la cuota efectiva del Impuesto sobre Sociedades por la concurrencia de la deducción del 50 por 100 de la cuota líquida aplicable por las cooperativas especialmente protegidas prevista en la norma foral que regula tal régimen fiscal, y de las deducciones con y sin límite previstas en la norma foral del Impuesto sobre Sociedades, de manera que se ordena su aplicación y cálculo.

El 30 de septiembre de 2016 se publica en el BOE el Real Decreto-ley 2/2016, de 30 de septiembre, por el que se introducen medidas tributarias dirigidas a la reducción del déficit público. Con efectos para los períodos impositivos que se inicien a partir de 1 de enero de 2016 se modifica el régimen de los pagos fraccionados del Impuesto sobre Sociedades para los contribuyentes cuyo importe neto de la cifra de negocios en los 12 meses anteriores a la fecha en que se inicie el período impositivo sea al menos de 10 millones:

- Ordaindu beharreko zenbatekoa ezin da izan urte natural bakoitzeko lehen 3, 9 edo 11 hilabeteetako galera-irabazien kontuko emaitza positiboaren %23tik beherakoa (%25etik beherakoa kreditu entitateetan eta hidrokarburoen sektorean).

- Lehenago, zenbatekoa kalkulatzeko, oinarriari aplikatzen zitzaion portzentajea goitik biribildutako karga tasa bost zazpirenekin biderkatuz ateratzen zen; orain hemeretzi hogeirenekin biderkatuz lortzen da portzentajea.

Aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga:

2015eko abenduaren 24an, argitara eman zen GAO n abenduaren 23ko 6/2015 Foru Araua, Aberastasunaren eta Fortuna handien gaineko Zergaren erreformari buruzkoa. Arauak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak, eta dakartzan aldaketen artean hauek nabarmendu daitezke:

- Garrantzi berezia du jarduera ekonomikoei atxikitako elementuen eta entitate jakin batzuetako partaidetzen zerga tratamenduak. Horrela, 100eko 75eko hobariaren orde zergatik salbuetsita gelditzen dira goian aipatutako elementu atxikiak eta partaidetzak, beharkizun jakin batzuk betez gero.

- Zerga oinarria kalkulatzeko balorazio araei dagokienez, berrikuntza garrantzitsu bat sartzen da ondasun higiezin eremuan. Haren arabera, zerga oinarrian hiru balioetako handiena (katastro balioa, balio egiaztatua edo eskurapen balioa) aintzat hartzen zuen sistemaren orde, balio bakarra (katastro balioa) kontuan hartuko duen beste sistema bat ezartzen da.

- Zergaren tarifa berrikusten da, Bizkaian eta Araban aplikatutakoetara hurbiltzeko.

BEZa:

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duenak, xedatutakoaren arabera, zenbait tributu Estatuak une bakoitzean ezartzen dituen

- La cantidad a ingresar no podrá ser inferior al 23% (25% entidades de crédito y sector de hidrocarburos) del resultado positivo de la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio de los 3, 9 u 11 primeros meses de cada año natural.

- Anteriormente el cálculo era resultado de aplicar a la base el porcentaje que resulte de multiplicar por cinco séptimos el tipo de gravamen redondeado por defecto y es sustituido por diecinueve veinteavos.

Impuesto sobre la riqueza y las grandes fortunas:

El 24 de diciembre de 2015 se publica en el BOG la Norma Foral 6/2015, de 23 de diciembre, de reforma del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas. Surte efectos desde el día 1 de enero de 2015 y entre las diferentes modificaciones que se incluyen cabe destacar las siguientes:

- Resulta de especial relevancia el tratamiento tributario de los elementos afectos a actividades económicas y las participaciones en determinadas entidades. De este modo, se sustituye la bonificación del 75 por 100 por la exención en el Impuesto de los elementos afectos y participaciones mencionados, cuando se cumplan determinados requisitos.

- Con respecto a las reglas de valoración para el cálculo de la base imponible, se incluye una relevante novedad en el ámbito de los bienes inmuebles. En su virtud, se sustituye el sistema por el cual había que computar en la base imponible el mayor de tres valores, esto es el valor catastral, el comprobado o el de adquisición, por otro sistema en el que se va a tener en cuenta un único valor, el catastral.

- Se revisa la tarifa del Impuesto, acercándola a las vigentes en Bizkaia y Araba.

IVA:

La Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco establece que algunos tributos se registrarán por las mismas normas

funtsezko eta formazko arau berberei jarraituz arautuko dira. Bada, tributu horiei dagokienez, Gipuzkoako ordenamendura ekarri dira BOEn argitaratu diren zenbait aldaketa, lurralde historiko honetan ere aplikagarriak direnak.

2014ko azaroaren 28an, azaroaren 27ko 28/2014 Legea argitaratu zen BOEn, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatzen duena. Lege horren aldaketa gehienak 2015ean jarri ziren indarrean. Hala ere, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, puntu hau aldatu ziren:

- Aduanakoaz bestelako gordailu-araubidearen erabilera egituratu egiten da, araubide horri lotzen zaizkion ondasunen inportazioen salbuespena honako hauei mugatzeko: legearen eranskinetako bosgarren apartatuak jasotzen dituen zerga bereziak ordaindu behar dituzten ondasunei, Erkidegoko aduana-lurraldetik datozen ondasunei, eta BEZaren Zuzentarauak zehaztutako ondasun jakin batzuei.
- Aldaketak sartzen dira araubide erraztutik eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza araubide berezitik kanpo geratzeko beharkizunetan.

2015eko urriaren 30ean argitara eman zen BOEn urriaren 29ko 48/2015 Legea, 2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, aldaketa teknikoak sartzen dira zenbait salbuespenetan barne erregulazioa EBko araudira hobeto egokitzeko.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga:

2015eko abenduaren 24an, argitara eman zen GAOen abenduaren 23ko 6/2015 Foru Araua, Aberastasunaren eta Fortuna handien gaineko Zergaren erreformari buruzkoa. Arauak balioen egiaztapenari buruzko 42.artikulua aldatu zuen.

2015eko abenduaren 28an, argitara eman zen GAOen abenduaren 23ko 7/2015 Foru Araua, zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen dituena. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan ezarritako zerga

sustantivas y formales que los establecidos en cada momento por el Estado. Respecto a los citados tributos se incorporan algunas modificaciones publicadas en el BOE y que son de aplicación en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

El 28 de noviembre de 2014 se publica en el BOE la Ley 28/2014, de 27 de noviembre, por la que se modifican la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido. Las modificaciones de esta Ley entran en vigor en su mayoría en 2015. Sin embargo, con efectos del 1 de enero de 2016, se modifican los siguientes aspectos:

- Se estructura el uso del régimen de depósito distinto del aduanero para restringir la exención de las importaciones de bienes que se vinculen a dicho régimen a los bienes objeto de Impuestos Especiales a que se refiere el apartado quinto del anexo de la Ley, a los bienes procedentes del territorio aduanero de la Comunidad y a determinados bienes cuya exigencia viene establecida por la Directiva de IVA.
- Se modifica la exclusión del régimen simplificado y del régimen especial de agricultura ganadería y pesca.

El 30 de octubre de 2015 se publica en el BOE la Ley 48/2015, de 29 de octubre, de Presupuestos Generales del Estado para el 2016. Respecto al Impuesto sobre el Valor Añadido se introducen modificaciones técnicas en determinadas exenciones para lograr una mejor adecuación de la regulación interna a la normativa comunitaria.

Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados:

La Norma Foral 6/2015, de 23 de diciembre, y publicado el 24 de diciembre de reforma del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas, modifica el artículo 42 de comprobación de valores.

La Norma Foral 7/2015, de 23 de diciembre, y publicado el 28 de diciembre por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias, en el ámbito de los beneficios fiscales previstos en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y

hobarien esparruan, eguneratu egiten da araubidera egiten den igorpena, eta, horrela, sozietateen gaineko zergan aurreikusita zegoen eta indargabetu zen etxebizitzaren errentamenduko entitateen araubide berezia aipatu beharrez, orain indarrean dagoena aipatzen da, hau da, ondasun higiezinaren errentamenduko jardura kualifikatua duten entitateen araubidea.

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga:

2015eko abenduaren 24an argitara eman zen GAOen abenduaren 23ko 6/2015 Foru Araua, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren erreformari buruzkoa. Bi artikulua aldatzen ditu abenduaren 25etik aurrerako ondorioekin: 17.a, balioen egiaztapenari buruzkoa, eta 19.a, oinarri likidagarriarena.

2015eko abenduaren 28an argitara eman zen GAOen abenduaren 23ko 7/2015 Foru Araua, zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen dituena. Bertan, aipatzekoak dira hauek:

- Banakako enpresak, negozio profesionalak edo entitateetako partaidetzak mortis causa edo inter vivos eskuratzegatik zerga oinarrian aplikatzen diren murriztapenen erregulazioa 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin aldatzen da, haren edukia beste lurralde historikoekin harmonizatzeko.
- Zergaren araudia Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzeko, oinordetza titulutzat hartzen dira oinordetza kontratu edo itunak, kontuan hartu gabe eraginkortasuna noiz hartzen duten. Dena den, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunei beharkizun gehigarriak exijitzen zaizkie, oinordetza titulutzat hartuak izateko. Aldaketa hori 2015eko urriaren 3tik aurrerako ondorioekin sartzen da.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga:

2015eko urriaren 27an, argitara eman zen GAOen urriaren 20ko 2/2015 Foru Dekretu-Araua, sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aldatzen dituena. Establezimendu

Actos Jurídicos Documentados, se actualiza la remisión al derogado régimen especial de entidades dedicadas al arrendamiento de viviendas que se preveía en el Impuesto sobre Sociedades, sustituyéndolo por el actualmente vigente régimen de entidades con actividad cualificada de arrendamiento de inmuebles.

Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones:

La Norma Foral 6/2015, de 23 de diciembre, y publicado el 24 de diciembre de reforma del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas, modifica con efectos del 25 de diciembre, el artículo 17 de comprobación de valores y el 19 de base liquidable.

La Norma Foral 7/2015, de 23 de diciembre, y publicado el 28 de diciembre por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias, establece:

- Se modifica, con efectos del 1 de enero de 2016, la regulación de las reducciones en la base imponible con ocasión de las adquisiciones «mortis causa» e «inter-vivos» de empresas individuales, negocios profesionales o de participaciones en entidades, al objeto de armonizar su contenido con los otros Territorios Históricos.
- A los efectos de acomodar la normativa del impuesto a la aprobación de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, se identifican como títulos sucesorios los contratos o pactos sucesorios, independientemente del momento en que opere su eficacia. No obstante, a los pactos sucesorios con eficacia de presente se les exigen requisitos adicionales para que tengan la consideración de títulos sucesorios. Esta modificación se incluye con efectos 3 de octubre de 2015.

Impuesto sobre la renta de no residentes:

El 27 de octubre de 2015, se publica en el BOG el Decreto Foral-Norma 2/2015, de 20 de octubre, por el que se modifican el Impuesto sobre Sociedades, el Impuesto sobre la Renta de no Residentes y el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados. En

iraunkor bidez jarduten duten zergadunen kasuan, foru dekretu-arau hori 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldiei aplikatzen zaie.

- Zerga oinarrian merkatuko balio normalaren eta kontabilitate balioaren arteko diferentzia sartuko da, ondare elementuak honako hauek direnean:

a) Espainiako lurraldean kokatuta dagoen eta jarduerari uzten dion establezimendu iraunkor bati atxikitako elementuak.

b) Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkor bati atxikita egon ondoren atzerrira lekualdatzen direnak.

2016ko maiatzaren 27an, argitara eman zen GAO n maiatzaren 17ko 11/2016 Foru Dekretua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena. Erregelamendu berriak aurrekoaren egitura gehiena gordetzen du, hau da, 49/1999 Foru Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduarena. Halere, bertan hainbat berrikuntza ere sartu behar izan dira, 16/2014 Foru Arau berrian hala aurreikusita egoteagatik.

7.2. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2016ko bilketa likidoa 1.561.946 mila eurokoa izan da guztira. Itundutako zerga guztien kudeaketa propioagatik bildutako zenbatekorik handiena suposatzen du, eta Herri Finantzen Euskal Kontseiluari atxikitako zerga itundu guztien %37,2 da.

el caso de contribuyentes que operen mediante establecimiento permanente, este Decreto Foral-Norma es de aplicación a los períodos impositivos que se inician a partir del 1 de enero de 2015:

- Se integrará en la base imponible la diferencia entre el valor normal de mercado y el valor contable de los siguientes elementos patrimoniales:

a) Los que estén afectos a un establecimiento permanente situado en territorio español que cesa su actividad.

b) Los que estando previamente afectos a un establecimiento permanente situado en territorio español son transferidos al extranjero.

El 27 de mayo de 2016, se publica en el BOG el Decreto Foral 11/2016, de 17 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de no residentes. El nuevo reglamento mantiene básicamente la misma estructura que su precedente, esto es el reglamento aprobado por el Decreto Foral 49/1999, si bien incluye novedades que han debido recogerse por estar así contempladas en la nueva Norma Foral 16/2014.


7.2. IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS

La recaudación líquida del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas ha ascendido a 1.561.946 miles de euros en 2016. Este impuesto aporta el mayor importe a la recaudación por gestión propia del total de tributos concertados y supone el 37,2% del total de tributos concertados afectos al Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

GRÁFICO 7.2. GRAFIKOA

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren bilketaren banaketa

Distribución de la recaudación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas
2016



Zergaren **sarrera iturriei** erreparatuz gero, hauxe ikusten da:

- Kopururik handiena lanaren atxikipenetatik dator: 1.471.306 mila euro (zerga honengatik bildutako guztiaren %90,7).
- Kapitalaren atxikipenak %4,4 dira, honela banatuta:
 - Kapital higikorra: %2,8.
 - Kapital higiezina: %1,6.
- Hurrengo kontzepturik garrantzitsuena ordainketa zatikatuak dira (%3,5). Zifra horren barruan:
 - %2,1 enpresako jardueretatik eratorritakoa da.
 - %1,4 profesionalek egindako ordainketei dagokie.
- %0,9 ondare irabazien atxikipenak dira.
- %0,6 loteria kargari dagokio.


Si distinguimos las **fuentes** de las que pueden provenir los ingresos del impuesto, se observa:

- La mayor cuantía proviene de las retenciones del trabajo: 1.471.306 miles de euros, (90,7% del total del impuesto).
- Las retenciones de capital suponen el 4,4%, distribuido entre:
 - El 2,8% del capital mobiliario.
 - El 1,6% del inmobiliario.
- El siguiente concepto en importancia son los pagos fraccionados, con el 3,5%, de los cuales:
 - Un 2,1%, a los derivados de las actividades empresariales.
 - Un 1,4% corresponde a los pagos efectuados por los profesionales.
- El 0,9% son las retenciones derivadas de las ganancias patrimoniales.
- El 0,6% corresponde al gravamen de loterías.

Kuota diferencial garbiak 60.765 mila euroko ekarpen negatiboa du, zerga honengatik bildutako guztiaren -%3,7.

La cuota diferencial neta presenta una aportación negativa, que asciende a 60.765 miles de euros y que supone un -3,7% del total de la recaudación del impuesto.

GRÁFICO 7.3. GRAFIKOA
Errenta Zergaren bilketa likidoaren bilakaera
Evolución de la recaudación líquida del IRPF



7.3 grafikoan ikusgai jarri dugu nolako bilakaera izan duen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren bilketa likidoak 2013-2016 epealdian, sarrera iturrien arabera. 1.402 milioi euroetatik 2013an 1.562 milioi euroetara pasatu da 2016an. 2014. urteko bilketa %3,0 igo egin zen, eta 2015ean %4,7. 2016an hazkunde tasa %3,3 izan da.

El gráfico 7.3 muestra la evolución de la recaudación líquida por IRPF en el periodo 2013-2016, distinguiendo las distintas fuentes de recaudación. De los 1.402 millones de euros de 2013 se ha pasado a los 1.562 millones de 2016. En 2014 la recaudación sube el 3,0% y en el año 2015 sube un 4,7%. En 2016 la tasa de crecimiento es del 3,3%.

Lanaren atxikipenak dira PFEZren bilketaren iturri nagusi. 2016an 1.471 milioi eurokoak izan dira. Azken hiru ekitaldietan honako hazkunde tasak izan dira: +%0,8, +%1,7 eta +%2,8 hurrenez hurren. 2014an igo egin zen, eta 2015ean joera mantentzen da. 2016an joera finkatzen da eta gora egiten du bilketak.

Las retenciones de trabajo son la fuente principal de la recaudación por IRPF. En 2016 han ascendido a 1.471 millones de euros. Su tasa de crecimiento ha sido del 0,8% en 2014. En 2015 mantiene la tendencia y aumenta el 1,7%. En 2016 se consolida el aumento y crece el 2,8%.

GRÁFICO 7.4. GRAFIKOA
Lan atxikipenen bilakaera
Evolución de las retenciones de trabajo





GRÁFICO 7.5. GRAFIKOA
Gainontzeko atxikipenen eta ordainketa zatikatuen bilakaera
Evolución de las demás retenciones y de los pagos fraccionados



PFEZren bilketaren gainontzeko iturriak oso urruti ageri dira. Nabarmentzekoa da **kuota diferencial garbiak** izan duen hobekuntza. 2014an kontzeptu honegatik eginiko itzulketa %13,3 jaitsi zen, 2015ean %28,5 eta 2016an %38,6, 2013ko 160 milioi eurotako itzulketatik 2016ko 61 milioiraino igaro da.

A gran distancia se sitúa el resto de fuentes de las que procede la recaudación por IRPF. Destaca la mejora en la **cuota diferencial neta**. En 2014 la devolución por este concepto decreció el 13,3%, en 2015 un 28,5%, y en 2016 un 38,6%, y pasa de devoluciones de 160 millones de euros en 2013 a 61 millones de euros en 2016.

Inbertsio fondoetako **ondare irabaziei aplikatutako atxikipenen** bilketa 14 milioi eurokoa izan da 2016. urtean, eta honako bariazio tasak izan dira: %6,4 2014an, %84,8 2015ean eta %45,1 2016an.

Kapital higiezinaren atxikipenak, hiri ondasun higiezinak errentan emateagatik lortutako etekinak zergapetzen dituenak, 26 milioi euro bildu ditu 2016. urtean, eta honako bariazio tasak izan dira: -%1,5 2014an, -%0,1 2015ean eta -%2,8 2016an.

Kapital higikorren atxikipenak bilketa likidoak gero eta jaitsiera handiagoak izan ditu: 2014an %11,3 jaitsi da, 2015ean %14,2 murriztu eta 2016an %14,5 murriztu da. Kuantitatiboki bilketa osoaren bigarren zenbatekoa da (46 milioi euro 2016an).

Jarduera profesional zein enpresakoen **ordainketa zatikatuengatik** 56 milioi euro bildu dira 2016an, eta gora-behera txikiak izan dituzte: -%3,0 2014an, +%0,6 2015ean eta +%4,9 2016an.


La **retención sobre las ganancias patrimoniales** en fondos de inversión, asciende a 14 millones de euros en 2016, habiendo presentando tasas de variación del 6,4% en 2014, 84,8% en 2015 y -45,1% en 2016.

La **retención por el capital inmobiliario**, que grava los rendimientos derivados del alquiler de los bienes inmuebles urbanos, asciende a 26 millones de euros en 2016, habiendo presentando tasas de variación del -1,5% en 2014, -0,1% en 2015 y -2,8% en 2016.

La recaudación líquida por **retención por el capital mobiliario** ha tenido progresivas disminuciones: decrece el 11,3% en 2014, disminuye el 14,2% en 2015 y disminuye el 14,5% en 2016. Cuantitativamente supone el segundo importe sobre la recaudación total (46 millones de euros en 2016).

Los **pagos fraccionados**, tanto por actividades empresariales como profesionales, suman 56 millones de euros en 2016 y han tenido pequeñas variaciones: -3,0% en 2014, +0,6% en 2015 y +4,9% en 2016.

GRÁFICO 7.6. GRAFIKOA
PFEZ. Kuota diferenzial garbiaren bilakaera
IRPF. Evolución de la cuota diferencial neta



Kuota diferenzial garbiagatik izandako bilketa likidoan osagai positiboa (bilketa osoa) eta negatiboa (itzulketak) bereizten baditugu, kopuru hauek ageri dira 2016an:

Si desglosamos la recaudación líquida por **cuota diferencial neta** en sus componentes positivo (recaudación íntegra) y negativo (devoluciones), en 2016 se ha obtenido:

- 225.510 mila euroko bilketa osoa.
- 286.275 mila euroko itzulketak.
- Haien arteko diferentziak -60.765 mila euroko bilketa likidoa ematen digu, hau da, emaitza %38,6 hobetu da aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

- Una recaudación íntegra de 225.510 miles de euros.
- Unas devoluciones por importe de 286.275 miles de euros.
- Por diferencia, la recaudación líquida ha ascendido a -60.765 miles de euros. Comparativamente con el ejercicio precedente, ha mejorado un 38,6%.

7.3. SOZIETATEEN GAIKEKO ZERGA

Sozietateen gaineko Zerga zuzeneko zergen artean bigarrena da bilketa likidoari dagokionez. Herri Finantzen Euskal Kontseiluari atxikitako zerga itundu guztien bilketaren %5,9 hartu du 2016an, hau da, 249 milioi euro guztira.

Sozietateen gaineko Zergagatik bildutako %8,7 jaitsi da 2014. urtean. 2015ean %5,8 igo da, baina 2016an joera aldatzen da eta %0,8 jaitsi da.


7.3. IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES

El Impuesto sobre Sociedades es el segundo impuesto de entre los directos en cuanto a importe líquido recaudado. En 2016 ha supuesto el 5,9% del total de tributos concertados afectos al Consejo Vasco de Finanzas Públicas, habiendo ascendido a 249 millones de euros.

El importe líquido recaudado por el Impuesto sobre Sociedades ha decrecido el 8,7% en 2014. En 2015 crece el 5,8%, pero en 2016 cambia la tendencia y decrece el 0,8%.

GRÁFICO 7.7. GRAFIKOA

Sozietateen gaineko Zergaren bilketa likidoaren bilakaera
Evolución de la recaudación líquida del Impuesto sobre Sociedades



Zergaren sarrerek honako iturriak dituzte:

- Ondorengo atxikipeanek:
 - Kapital higikorraren etekinarenak.
 - Kapital higiezinaren etekinarenak.
 - Ondare irabazienak.
- Zerga likidatzean lortutako kuota diferentzial garbia.


Kapital higikorraren nahiz higiezinaren atxikipeanengatik eta, orobat, ondare irabazien atxikipeanengatik bildutakoa Errenta Zergaren eta Sozietateen gaineko zergaren artean erdibanatuz gero (%50) zenbateko eta bilakaera bera ageri dira bi zergetan. Horren azterketa aurreko atalean jaso dugu.

Las fuentes de las que provienen los ingresos del impuesto son:

- Las retenciones practicadas sobre:
 - El rendimiento del capital mobiliario.
 - El rendimiento del capital inmobiliario.
 - Las ganancias patrimoniales.
- La cuota diferencial neta obtenida en la liquidación del impuesto.

La distribución al 50% entre el IRPF y el impuesto sobre sociedades de la recaudación por retenciones del capital, tanto mobiliario como inmobiliario, así como las de las ganancias patrimoniales, hace que presenten la misma cuantía y trayectoria en ambos impuestos. Su análisis ya está recogido en el apartado anterior.

GRÁFICO 7.8. GRAFIKOA
Sozietateen gaineko zerga. Kuota diferentzial garbiaren bilakaera
Impuesto sobre sociedades. Evolución de la cuota diferencial neta



Horrela bada, zergaren **kuota diferencial garbia** aztertuko dugu, 2016ko ekitaldian datu hauek eman dituen:

- 292.341 mila euroko bilketa osoa.
- 128.550 mila euroko itzulketak.
- Bi aurrekoen arteko diferentziak 163.792 mila euroko bilketa likidoa eman du, 2015ean lortutakoa baino %15,0 handiago.

Así pues, nos fijaremos en la **cuota diferencial neta** del impuesto, cuyos datos para 2016 han sido:

- Una recaudación íntegra por valor de 292.341 miles de euros.
- Devoluciones que han ascendido a 128.550 miles de euros.
- Por diferencia entre las anteriores, una recaudación líquida de 163.792 miles de euros, un 15,0% superior a la obtenida en 2015.

7.4. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren bilketa likidoaren barruan bi kontzeptu hartzen dira kontuan: batetik, Foru Aldundiak berak kudeatutako bilketa, eta, bestetik, Ekonomia Itunaren Legeak zerga honetarako araututako doikuntzak direla-eta Estatutik etorritako sarrerak.

Zerga honen kudeaketa propioagatik bildutako zenbatekoak 2016ko bilketa osoaren %28,9 hartzen du. Doikuntzengatik bildutako %10,5a gehituz gero, BEZa zerga bilketan pisu gehien duen zerga dugu (bilketa osoaren %39,4).

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren bilketa likidoa 1.653.751 mila eurokoa izan da 2016. urtean, aurreko urtean baino 20.629 mila euro gehiago. Horrek %1,3ko igoera ekarri du berekin urte horien artean. Aurreko bi ekitaldietan urteko hazkunde tasek hauek izan dira: 2014an +%12,1 eta 2015ean +%3,1.


7.4. IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO

Dentro de la recaudación líquida del impuesto sobre el valor añadido se tiene en cuenta tanto la correspondiente a la gestión propia de esta Diputación Foral, como la parte atribuida a Gipuzkoa del ingreso realizado por el Estado con motivo de los ajustes que por este impuesto están regulados en la Ley del Concierto Económico.

El importe procedente de la recaudación por gestión propia de este impuesto supone el 28,9% de la recaudación total de 2016, lo que, unido al 10,5% que representan los ajustes, hace que el IVA sea el concepto impositivo de mayor peso recaudatorio (39,4% de la recaudación total).

Cuantitativamente, la recaudación líquida total de 2016 por el Impuesto sobre el Valor Añadido (por ambas vías) ha ascendido a 1.653.751 miles de euros, 20.629 miles más que lo recaudado en 2015, lo que supone un aumento interanual del 1,3%. Las tasas de crecimiento de los dos ejercicios anteriores han sido: +12,1% en 2014 y +3,1% en 2015.

GRÁFICO 7.9. GRAFIKOA
BEZaren bilketa likidoaren bilakaera
Evolución de la recaudación líquida del IVA



Kudeaketa propioz bildutako BEZak emaitza hauek ageri ditu 2016an:

- **1.840.906** mila euroko bilketa osoa.
- **628.411** mila euroko itzulketak.
- **1.212.495** mila euroko bilketa likidoa, bilketa osoari itzulketak kendu ondoren kalkulatua.


Kudeaketa propioagatik lortutako bilketa likido honek igoera izan du epealdi guztian, 2014an %13,4, 2015ean %2,4 eta 2016an %0,7.

En 2016 el IVA recaudado mediante **gestión propia** presenta:

- Una recaudación íntegra que asciende a 1.840.906 miles de euros.
- Devoluciones por importe de 628.411 miles de euros.
- Una recaudación líquida, como resultado de restar las devoluciones a la recaudación íntegra, por importe de 1.212.495 miles de euros.

Esta recaudación líquida de gestión propia aumenta en todo el período, en 2014 un 13,4%, en 2015 un 2,4% y en 2016 un 0,7%.

GRÁFICO 7.10. GRAFIKOA
BEZaren sarrera iturrien bilakaera
Evolución de las diferentes vías de ingreso del IVA



BEZaren doikuntzen bidez egiten den bilketa Estatutik jasotzen da zuzenean hiru hilean behin. 2016. urtean 441.256 mila euro ordaindu ditu guztira, honela banatuta:

- %74,3 aduanetako errentak dira.
- Gainerako %25,7a barruko eragiketen doikuntzei dagokie.

Datu horiek aurreko ekitaldikoekin konparatuz gero, agerian jartzen da doikuntzen bidez egindako bilketa %2,8 igo dela. Aduanetako errentenak %26,1 igo dira, eta barruko eragiketen doikuntzak %32,9 jaitsi dira. Beraz, emaitza globalak gora egitea ekarri du.

